

KONGRESUA

Abenduaren 20KO Euskadiko Kooperatiben 11/2019, Legea Legearen edukia eta gizarte-ekonomia garatzeko aukera

Azaroaren 16 eta 17an Deustuko Unibertsitatean Euskadiko Kooperatiben Legeari buruzko Kongresua ospatu da, Kooperatiba Zuzenbidearen Nazioarteko Elkarteak, eta Deustuko Unibertsitateko Kooperatiba Gaien Institutuak antolatuta, Zuzenbidearen Euskal Akademiarekin elkar lanean. Bi jardunaldietan zehar, Legearen edukia eta gizarte-ekonomia garatzeko aukera jorratu dira. Kongresuan 150 partaide baino gehiago izan dira egunero

Kongresuaren aurkezpena Felipe Gómez jaunak, Zuzenbide Fakultateko Nazioarteko Harremanetarako eta 2030 Agendako dekano-ordeak, Elena Pérez Barredo andreak, Eusko Jaurlaritzako Lan eta Gizarte Segurantzako Sailburuordeak eta José Miguel Gorostiza jaunak, Zuzenbidearen Euskal Akademiaren ordezkariak, egin zuten.

Lehenengo saioa Santiago Larrazabal Basáñez jaunak zuzendu zuen.

Lehen jardunaldian, Kongresuko lehen mahaian, Alejandro Martínez Charterina doktoreak kooperatibismo modernoaren sorrera aztertu zuen, XIX. Mendeko Rochdalen gertatutakoa aipatuz. Kooperatiben etorrera Euskadira atzeratu zen mende horren amaierara arte, kooperatiben legerik gabe. Edu berean, euskal autonomia-erkidegoaren legeek izan duten bilakaera ere azaldu zuen. Jarraian, Alfredo Ispizua doktoreak kooperatiben legeria egokiaren alde egin zuen, kooperatiben printzipioetan oinarrituta, kooperatibak eratzeko eta inskribatzeko. Euskadin, tamaina eta jarduera ezberdinetako 3.000 kooperatiba baino gehiago ditugu.

Bigarren mahaian, Enrique Gadea doktoreak txalotu zuen 1993ko kooperatiba-legearen eraldaketa Euskadin, baita 11/2019 Legeak ildo bertsutik jarraitu duen bidea ere, kooperatibaren eta bazkideen araubide ekonomikoari begira. Halaber, derrigorrezko erreserba-funtsak bazkideen artean banatzeko aukera, zati batean bada ere, proposatu zuen. Jarraian, Javier Divar doktoreak azaldu zituen inbertsio-funtsen abantailak kooperatibak finantzatzeko tresna gisa, gure kooperatiba nagusietan inbertitzeko funts horiek erabiliz. Amaitzeko, Fernando Sacristán doktoreak kooperatiben arteko bat-egiteak izan zituen hizpide. Hiru fase bereiztu behar dira: aurreko negoziaketa, bat egiteko proiektua eta Erregistroaren inskripzioa. Horiek horrela, 11/2019 Legeak ez ditu jaso bat-egite prozesuetako alderdi garrantzitsuak, besteak

beste, eragiketa abalatzeko kanpoko txostenak kontratatzea edota bat-egitearen ondorengo artezkaritza-batzordearen osaketa.

Azaroaren 17an bigarren jardunaldiari ekin zitzaion Vega María Arnáez Arce andreak zuzenduta.

Bigarren jardunaldian, lehen mahaian, Iñigo Nagore doktoreak sozietatearen organo nagusiak jorratu zituen, hots, batzar orokorra eta artezkaritza-kontseilua. Hizlariak nabarmendu zuenez, Lege berriak sustatu duela sozietatearen organoek bide telematikoen bitartez jardun dezaten kooperatibaren web orria erabiliz interneten bidez. Jarraian, Javier Sanz jaunak zaintza-batzordearen funtzionamendua azaldu zuen. Ehun bazkide baino gutxiago dituzten kooperatibetan borondatezko organoa da; bestela, derrigorrezkoa da. Eginkizun ugariko organoa da, baita kooperatiba ordezkatzekoa ere, zenbait baldintza izanez gero.

Bigarren mahaian, Josune López doktoreak kooperatibaren bazkide langilearen araubide juridikoa aztertu zuen, laneko ondorioak barne. Bazkideek ez dute lan-harremanik euren kooperatibarekin ezpada merkataritzako harremanak. Hortaz, bazkideen lanbide-araubidea arautuko dute kooperatibek, Lanaren Nazioarteko Erakundearen gutxieneko estandarrak aintzat hartuta. Amaitzeko, Aitziber Mugarra eta Marta Enciso doktoreek ekintzaileak erakartzeko bideak jorratu zituzten enpresak sustatzeko kooperatiben bitartez. Berrikuntza bezala, kooperatiben euskal legearen 135. artikuluan jaso dira. Halakoen zeregina da jarduera ekonomikoak eta sozialak sortzeko eta hazteko laguntza ematea kooperatiben bitartez.